

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

4567 *2/2021 Lege Organikoa, martxoaren 23koa, Kantabriako Autonomia Estatutuaren abenduaren 30eko 8/1981 Lege Organikoa erreformatzekoa, Parlamentuko diputatuen eta Gobernuko presidentearen eta kontseilarien forudun-izaera ezabatzeko dena.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

Abenduaren 30eko 8/1981 Lege Organikoaren bidez onartutako Kantabriako Autonomia Estatutuaren 58.1.a) artikulua ezartzen duenez, Estatutuaren erreformak jarraitu behar dio erreforma-ekimenarekin hasten den prozedura bati. Prozedura hori Gobernuak, Kantabriako Parlamentuak (kideen heren baten laguntzarekin) edo Gorte Nagusiek sustatu ahal izango dute.

Ilido horretan, ekimen hau sinatu duten parlamentuko taldeek, Kantabriako Parlamentuko kide guztiak ordezkatzeko dituztenez, erabaki dute 9L/4300-0018 Legez besteko Proposamena betetzea. Proposamen hori Osoko Bilkurak onartu zuen, 2015eko azaroaren 3ko bilkuran, non erabaki baitzen Estatutuaren 11. eta 20. artikulua aldatzea, Kantabriako presidentearen, Gobernuko gainerako kideen eta Kantabriako diputatu guztien foru prozesal bereziari dagokionez.

XXI. mendean oso zaila da arrazoitzea foru judizial bereziak daudela legeak aurrez zehaztutako epaile arruntetik aparte, Espainiako 1978ko Konstituzioaren 24.2 artikuluan jasota dagoena, eta Espainian 10.000 pertsonari baino gehiagori eragiten die. Horietatik 1.500 baino ez dira diputatuak edo autonomia-erkidegoetako gobernuetako kideak, baina ordezkari politiko diren aldetik, beharrezkotzat jotzen da prerrogatiba hori berriz aztertzea, foru prozesal berezi hori; izan ere, justifikazio juridikorik eta sozialik ez duenez, gomendagarria da, adibidea eman nahirik, prerrogatiba hori kentzea herritarrek zuzenean edo zeharka hautatu dituzten guztiei.

Parlamentariak beren eginkizunari lotutako berme funtzionalak eta prerrogatibak izan behar dituzte —esaterako, bortxaezintasuna—, beren ordezkaritza-lana askatasunez eta behar bezala egingo dutela bermatzeko, bai eta parlamentuan herritarren borondatea behar bezala gauzatu delako bermatzeko ere. Baina egungo gizarteak, botere judizial independentea duenak, ez du zerikusirik XVIII. eta XIX. mendeetakoarekin; izan ere, mende haietan pribilegio prozesal batzuek bermatzen zuten parlamentarien lana, epailearen edo agintarien boterearen aurrean, eta horrek gaur egun ez du zentzurik.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da Kantabriako Autonomia Estatutua aldatzea, foru prozesal bereziaren prerrogatiba kentzeko, legeak alde aurretik zehaztutako epaileek edo auzitegiek epai ditzaten Kantabriako herritar guztiak.

1. artikulua. *Kantabriako Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 8/1981 Lege Organikoaren 11.1 artikulua aldatzea.*

Aldatu egiten da Kantabriako Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 8/1981 Lege Organikoaren 11.1 artikulua, eta honela idatzita geratuko da:

«1. Kantabriako Parlamentuko diputatuek, beren agintaldia bukatu eta gero ere, bortxaezintasuna izango dute, parlamentuko jardueretan agertutako iritziei eta beren karguan aritzerakoan emandako botoei dagokienez.

Beren agintaldiak dirauen bitartean ezin izango dira ez atxilotuak ez atxikiak izan, salbu eta delitu gori-gorian harrapatzen badituzte, eta legeak alde aurretik zehaztutako epaile arruntei dagokie erabakia hartzea diputatuen erru-egozte, espetxeratze, auziperatze eta epaitzeari buruz.»

2. artikulua. *Kantabriako Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 8/1981 Lege Organikoaren 20. artikulua kentzea.*

Kendu egiten da Kantabriako Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 8/1981 Lege Organikoaren 20. artikulua.

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Kantabriako Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 8/1981 Lege Organikoaren aldaketa hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Kantabriako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

Beraz,

Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2021eko martxoaren 23an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN